

BALADAK



EUSKARA ETA LITERATURA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila

Maria Elisa Ituarte

BALADAK

Irakasgaiak: Euskara eta Literatura / Gaztelania eta Literatura

Gaia: Ahozko literatura: baladak

Maila: DBHko 4. maila

Saio kopurua: 8

Proposamenaren testuingurua:

Jakin badakigu literatura idatzia sortu baino lehen ahozkoa izan zela. Gure kasuan, euskaldunon kasuan, garrantzi handikoa izan da ahozkotasunaren pisua. Literatura herrikoa, tradizionala deitu izan zaio horri. Gure helburua da ikasleak jabe daitezela euskaldunek gorde eta ahoz aho transmititu izan duten altxor paregabe horren atal berezi batez: baladak. Aukeratutako balada batzuk landuko ditugu, gaiaren arabera sailkatuta landu ere. Izendapenaren zergatia azaltzetik hasiko gara eta, azkenean, beraiek balada bat sortu eta publikoaren aurrean errezitatze prozesua burutuko dute.

Landuko diren oinarrizko gaitasunak:

Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: jarduera guztietan

Teknologia digitala eta ICTak erabiltzeko gaitasuna: jarduera guztietan

Giza eta Arte kulturarako gaitasuna: jarduera guztietan

Gizarterako eta Herritartasunerako gaitasuna: jarduera guztietan

Ikasten ikasteko gaitasuna: 2, 3, 4 eta 5 jardueretan

Norberaren ekimenerako eta autonomiarako gaitasuna: 4, 5 eta 6 jardueretan

Helburu didaktikoak:

*Aukeratutako balada bat/batzuk jendaurrean errezitatzea.

*Balada jakin baten eskemari jarraituz, berri bat sortzea: pertsonaiak eta gaia aldatuta, egoera aldatuta...

*Baladak zer diren definitzea.

*Balada mota desberdinen ezaugarri behinenak ezagutzea eta baladak entzun eta irakurrita, haietan identifikatzea.

*Ahozko gure kulturaren transmisio kateari jarraipena ematearen ardura agertzea eta altxor horren balioaz ohartzea.

*Nork bere kabuz tradizioetik datozen lanak jaso eta haietaz hausnartzeko kapaz izatea.

*Bertso, erromantze, baladen irakurketa adierazkorrean trebatzea.

*ICTak eta testu-prozesadoreak informazioa aurkitzeko erabiltzea.

*Ahozko literaturaren berezitasunei buruz informazioa bilatzea (Internet, testu liburuak...) eta tauletan jasotzea.

*Literatur baliabide estilistiko ohikoenak ezagutzea.

*Zereginak gauzatzerakoan autonomia garatu eta ekoizpenen zuzentasuna eta alde estetikoa zaintzearen garrantziaz ohartaraztea.

Edukiak:

- *Baladak: definizioa. Sailkapena. Adibideak.
- *Baladak: ahozko literatura tradizionala
- *Balada eta Kantu Lirikoak bereizi.
- *Literatur baliabide estilistikoak ezagutu eta aurrez entzun/irakurritako testuetan identifikatu eta sailkatu: metafora, errima, neurria, paralelismoa, errepika...
- *Irakurketa adierazkorren oinarriak ikasi: ahoskera erregelak... Praktikan jarri.
- *Testu bat ozenki irakurri edo esateko baliabideak.
- *Lanak garatzeko orduan, autonomia sustatu.
- *Testu idatziak berrikustearen garrantzia: egokitzapena, koherentzia eta zuzentasuna kontuan hartu.

Jardueren sekuentzia:**a) Planifikatzea:**

1. **jarduera:** Zer egingo dugu? Badakizue baladak zer diren?

b) Gauzatzea:

2. **jarduera:** Baladen ezaugarriak aztertzen
3. **jarduera:** Baladen gaiak
4. **jarduera:** Baladak aztertzen eta gure balada sortzen

c) Erabiltzea:

5. **jarduera:** Balada jendaurrean agertzen
6. **jarduera:** Ebaluatzen

Ebaluazioa:**Adierazleak:**

- *Ea ezagutzen dituen ahozko euskal literaturaren atal diren baladen ezaugarri nagusiak.
- *Ea gure ahozko literatura ezagutarazteko gogorik duen eta transmisio katea baloratzen duen.
- *Ea parte hartzen duen eskolan nahiz inguruan euskararen normalizazioarekin eta euskal kulturaren transmisioarekin eta sorkuntzarekin lotuta antolatzen diren jardueratan.
- *Ea sortu beharreko testu motaren sekuentzia arketipikoa jarraitzen duen.
- *Ea buruz dakizkien bertso eta baladak eta abesten dituen.
- *Ea bilatzaileak behar bezala erabiltzen dituen informazioa aurkitzeko.
- *Ea informazio garrantzitsua bilatzen eta hautatzen duen, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- *Ea hautatutako generoan bereziki erabiltzen diren erretorikaren eta estiloaren zenbait egitura eta prozedura identifikatu eta erabiltzen dituen.
- *Ea transmititu nahi duen edukirako egokiak diren adierazpen-baliabideak erabiltzen dituen.
- *Ea gogotsu parte hartzen duen elkarrekiko lankidetzan eta ikaskuntzan.
- *Ea zereginak planifikatzerakoan eta burutzerakoan behar besteko autonomia duen.
- *Ea zereginak gauzatzeko zuzentasuna eta alde estetikoak ere zaintzen dituen.

Tresnak:

Jardueren sekuentzian proposatuko direnak. Behaketa orriak.

1. JARDUERA. Zer egingo dugu?

Badakizue zer diren baladak?



- ❖ Ondoko helbideetan sartzen bazarete, hainbat kanta entzungo dituzue eta horietatik, taldeka bildurik, zein kanta izan daitekeen balada bat eta zein ez aukeratuko duzue. Izenburuak apuntatu eta gorde.

- <http://www.ikasbil.net/> (Aisialdi atalean, kantu-kantari hautatu)
- <http://www.goeat.com/listen/a20debb/Orbelak-airez-aire-Hiru-Truku>
- <http://www.goeat.com/listen/6841d4e/Brodatzen-ari-nintzen-Haizea>
- <http://www.goeat.com/listen/1e6ab29/Atarratze-gazteluko-kanta-Benito-Lertxundi>
- <http://www.goeat.com/listen/9d85be5/Belatsarena-Bereterretxe-Benito-Lertxundi>
- <http://www.goeat.com/listen/8ff4865/Orreaga-Benito-Lertxundi>
- ...

✓ Ezagutzen duzue beste euskal kanta tradizionalik?

✓ Non entzun dituzue? Etxean? Aitona-amona edo gurasoen ahotan? Eskolan? Jaietan? ✓ Zein uste duzue zela garai batean horrelako kanten helburua?

✓ Non uste duzue gorde direla gehienbat horrelakoak: hirietan edo herri txikietan? baserri giroan edo industria garatu den eremuetan? Zergatik?

✓ Benito Lertxundi aipatzen badizuegu, zein kanta datorkizue burura?

Zer egingo duzue sekuentzia honetan?

Bukaeran zer egingo duzuen zehaztu ahal izateko jarduera duzue lehenbiziko hau.

- ❖ Taldeka bilduko zarete helburuak zehazteko: Zer egingo duzue? Nola? Zertarako? Gure proposamena koadro honetan ikusten duzue. Zerbait falta edo soberan dagoela iruditzen bazaizue orain da momentua egokitzeko:

Zer egingo dugu?	Zertarako egingo dugu?	Zer ikasiko dugu egiten?
✗ Balada bat asmatu eta idatziko dugu. ✗ Gertaera bat..... duten testuak entzungo ditugu. ✗ Balada mota desberdinak identifikatuko ditugu ✗ Ikuspuntu desberdinei erreparatu eta elkarlanean adostasun batera iristen ikasiko dugu. ✗ ... ✗ ... ✗ Taldekideen iritziak kontuan izango ditugu. ✗ Jendaurrean hitz egiteko arau nagusiak landuko ditugu.	✗ Gure ahozko tradizioaren altxor ederrenetako bat ezagutzeko. ✗ ✗ ✗ ✗ Euskal kantetan dagoen aberastasunaz jabetzeko. ✗ Baladek lantzen dituzten gaiak unibertsalak direla ohartzeko. ✗ Guk zer ikasi eta zer egin dugun azaltzeko. ✗ Gure lana jendeari erakusteko. ✗ ... ✗ ... ✗ ... ✗ ...	✗ . ✗ ✗ ✗ ✗ ✗ Elkarrekin lanean aritzen: adostasun batera iristen... ✗ Ahozko literatura ezagutzen eta maitatzen. ✗ Jendaurrean emanaldiak burutzen. ✗ Lankidetzak hobetzen.

ADOS?

Jada badakizue zer egingo duzuen eta zertarako, eta ondorioz, zer ikasiko duzuen unitate honetan.

2. JARDUERA. Baladen ezaugarriak aztertzen

Jada entzun dituzue hainbat balada. Orain, benetako lanari lotuko gatzazkio.

Baladak kanta bidez ailegatu zaizkigu gehienbat. Hala ere, komenigarria da **kanta lirikoetatik** (XVI.mendean oso ohikoak zirenak Europa osoan) bereiztea. Azken hauek subjektibotasuna dute nagusi, baladak baino laburragoak eta sinpleagoak dira, baina baita bizitasun handiagokoak ere.

Baladen ezaugarri nagusia, ordea, narrazioak izatean datza, nahiz eta elkarriketek ere indar handia izaten duten, batik bat dramatizotasuna areagotzeko. Bestalde, gaiaren trataeran kanta lirikoak baino objektiboagoak ere badirela aipatu behar.

Beste ezaugarri bat ere aipatu behar: balada batzuen hainbat bertsio batu dira. Eta, gainera, batzuetan muturreko euskalkietan —bizkaiera eta zuberera— gorde izan dira hobekien. Bizkaiko Arratia ingurua da balada gehien bildu diren ingurunea.

- ❖ Ondoren, balada batzuk aurkezten dizkizuegu. Lehenbizi, ahogozagarri, entzun. Gero, arretaz irakurri beharko dituzue lanari ekiteko. Luzeak dira, baina, lasai, behin irakurri eta ulertuz gero, beste jarduera batean ere baliagarriak izango zaizkizue-eta!
- Hobe bikotetan aritzen bazarete lanean.

BERETERRETXEREN KANTORIA

I) Haltzak ez du bihotzik,
ez gaztanberak hezürrik;
enian uste erraiten ziela
aitunen semek gezurrik

II) Andozeko ibarra,
ala zer ibar lüzia,
Hiruretan ebaki zaitan
armarik gabe bihotza.

III) Bereterretzek oheti,
neskatuari eztiki:
"abil eta so egin ezan
gizonik denez ageri"

IV) Nestakuak berhala,
ikusi zian bezala,
hirur dozena bazabiltzala
bortha batetik bestera.

V) Bereterretzek leihoti,
Jaun kuntiar goraintzi,
ehün behi bazereitzola
beren zezena ondoti.

VI) Jaun kuntiak berhala,
traidore baten bezala:
"Bereterretx aigü borthala,
ützüliren hiz berhala"

VII) Ama indazüt athorra,
Mentüraz sekülakua.
Bizi denak orhit úkenen du
Bazko gaüerdi ondua.



VIII) Heltü nintzan Ligira
buneta erori lürrera
büneta erori lürrera eta
eskurik ezin behera.

IX) Heltü nintzan Espeldoira
han haritx bati esteki,
han haritx bati esteki eta
bizia zeitan idoki.

X) Marisantzen lasterra
Bostmendietan behera.
Bi belhañez herrestan sarthü da
Lakharri-Büstanobila.

XI) Büstanobi gaztia
ene anaie maitia
hitzaz hunik ez balin bada
ene semia jua da.

XII) Arreba, ago ixilik
ez othoi egin nigarrrik.
Hire semia bizi bada
Mauliala dün juanik.

XIII) Marisantzen lasterra
Jaun Kuntiaeren borthala.
Ai, ei, eta jauna, nun düzue
ene seme galanta

XIV) Hik bahiena semerik
Bereterretxez besterik?
Ezpeldo altian dün hilik.
Abil, eraikan bizirik,

XV) Ezpeldoiko jentia,
Ala sentimendü-gabiak
Hila haiñ hüillan úkhen-eta
deüsere etzakienak!

XVI) Ezpeldoiko alhaba
Margarita deitzen da:
Bereterretxen odoletik
ahürka biltzen ari da.

XVII) Ezpeldoiko bukhata,
ala bukhata ederra!
Bereterretxen athorretarik
hirur dozena ümen da,

Entzuteko, joan honako helbide honetara:
<http://www.goeat.com/listen/46ce703/Bereterretxen-kanthoria-Mikel-laboa->
Informazio gehiago helbide honetan topa dezakezue:
<http://www.blogari.net/euskargazki?cat=5718>

BRODATZEN ARI NINTZEN

Brodatzen ari nintzen,
ene salan jarririk;
Aire bat entzun nuen
itsasoko aldetik;
Itsasoko aldetik,
untzian kantaturik.

Brodatzea utzirik,
jin nintzen amagana:
Hean jaliko nintzen
gibeleko leihora
gibeleko leihora,
itsasoko aldera

Bai habil, haurra habil,
erran kapitainari
jin dadin afaitera,
hemen deskantsatzera
hemen deskantsatzera,
salaren ikustera.

Jaun kapitaina, amak
igortzen nau zugana
Jin zaiten afaitera
eta (hantxe)
deskantsatzera,
hantxe deskantsatzera,
salaren ikustera.

Andre gazte xarmanta
hoi ezin ditekeena
iphar haizea dugu
gau behar dut aintzina

ezin ilkia baitut
hauxe da ene pena.

Andre gazte xarmanta
zu sar zaite untzira
gurekin afaitera
eta deskantsatzera
hortzet deskantsatzera
salaren ikusterat

Andre gazte xarmanta
igaiten da untzira,
han emaiten diote
lo belharra papora
eta untzi handian
lo dago gaixo haurra.

Jaun kapitaina nora
daramazu zuk haurra?
zaluxko itzulazu
hartu duzun lekura,
hartu duzun lekura
aita-amen gortera

Nire mariñel ona
hedazak heda bela
beti nahi nuena
jina zaitak aldera
ez duk hain usu jiten
zoriona eskura

Jaun kapitaina,
nora ekarri nauzu huna?

Zalu itzul nezazu
hartu nauzun lekura.
hartu nauzun lekura,
aita-amen gortera.

Andre gazte xarmanta,
hori ezin egina,
hiru ehun lekutan
juanak gira aintzina...
Ene meneko zira,
orai duzu orena...

Andre gazte xarmantak
hor hartzen du ezpata
bihotzetik sartzen ta
hila doa lurrera!...
Aldiz haren arima
hegaldaka zerura!

Nere kapitain jauna:
hauxe duzu mahurra
- Nere marinela ona
nurat haurtiki haurra?
- Norat haurtiki haurra?
hortxet itsas zokora

Hiru ehun lekutan
dago itsas lehihorra:
Oi Ama Anderea,
so egizu leihora...
Zure alaba gaixoa,
uhinak darabila.

Brodatzen ari nintzen entzuteko:

<http://www.goeear.com/listen/6841d4e/Brodatzen-ari-nintzen-Haizea>



BRODATZEN ARI NINTZEN

The image shows the musical notation for the song 'Brodatzen ari nintzen'. It consists of three staves of music. The first staff starts with a treble clef and a key signature of one sharp (F#). The second staff starts with a treble clef and a key signature of one sharp. The third staff starts with a treble clef and a key signature of one sharp. The music is written in a simple, melodic style.

ATHARRATZE JAUREGIAN

1

Atharratze jauregian bi zitroin doratu
Hongriako erregek batto du galdatu;
Arrapostu ukhen du ez direla huntu,
Huntu direnian batto ukhenen du.

2

Atharratzeko hiria hiri ordoki;
Hur handi bat badizu alde bateti,
Errege bidia erdi erditi,
Maria Madalena beste aldeti.

3

Aita, saldu naizu idi bat bezala,
Ama bizi ukhen banu, aita, zu bezala,
Enunduzun ez juanen Hongrian behera,
Bena bai ezkonturen Atharratze Salala.

4

Ahizpa, juan zite portaliala,
Ingoiti horra duzu Hongriako erregia;
Hari erran izozu ni eri nizala,
Zazpi urthe huntan ohian nizala.

5

Ahizpa, ez nukezu ez sinhetsia,
Zazpi urthe huntan ohian zirela,
Zazpi urthe huntan ohian zirela;
Bera nahi dukezu jin zu ziren lekhila.

6

Ahizpa, jauntz ezazu arropa berdía.
Nik ere jauntziren dit ene churia.
Ingoiti horra duzu Hongriako erregia;
Botzik kita ezazu zure etchia.

7

Aita, zu izan zira ene saltzale,
Anaie gehiena dihariren hartzale,
Anaie artekue zamariz igaraile,
Anaie tchipiena ene laguntzale.

8

Aita juanen gira oro alkarreki,
Etchera jinen zira changri handireki,
Bihotza kargaturik, begiak bustirik,
Eta zure alaba tumban ehortzirik.

9

Ahizpa, zuza orai Salako lehiora,
Ipharra ala hegua denez jakitera;
Ipharra balin bada goraintzi Salari,
Ene korpitzaren cherka jin dadila sarri.

10

Atharratzeko zeñiak berak arrapikatzen,
Hanko jente gazteria beltzez beztitzen,
Andre Santa Clara hantik partitzen,
Haren peko zamaria urhez da zelatzen."



<http://www.goeear.com/listen/1e6ab29/Atarratze-gazteluko-kanta-Benito-Lertxundi>

- ❖ Gustatu zaizkizue? Bada, orain ondorengo behaketa-taula beteko duzue balada hauen ezaugarri nagusiei erreparatzen hasteko.

EZAUGARRIAK	Bereterretxeren kantoria	Brodatzen ari nintzen	Atharratze jauregian
Maitasun kontuak dira nagusi			
Neskatila bat da protagonista nagusia			

Kapitainak, neskaren oniritziarekin bahitu egiten du neska gaztea			
Gerra kontuak eta mendekua dira nagusi			
Iparraldeko euskalki batean idatzita dago			
Narrazioa da nagusi			
Bukaera tragikoa du			
Protagonistaren heriotzarekin bukatzen da istorioa			
Tokia eta denbora zehatz-mehatz deskribatzen dira			
Joera lirikoa: sentimenduak...			
Joera epikoa: gertakarien kontaketa			

- ❖ Hiru baladen ezaugarriei buruz hitz egingo duzue orain talde handian. Adostasun batera iristen zaretenean, hiru taldetan banatuko zarete eta talde bakoitzak aurretiaz entzun eta irakurritako baladetako bat landuko du. Hona hemen baliagarria suerta dakizuen galde-sorta bat:

✓ Zenbat pertsonaia agertzen dira? Nolakoak dira? Pertsonaia nagusia, arrunta da ala goi-mailakoa? Deskriba itzazue labur-labur.

✓ Zenbakiak agertzen dira balada batzuetan. Zentzu hertsian ulertu behar ditugu? Zer uste duzue esan nahi dutela?

✓ Estilo zuzenaren erabilera ere oso ohikoa da baladetan. Aipatu esaldiren bat.

✓ Kontaketaren barruan, argi geratzen dira gertaera guztiak ala anbiguotasuna da nagusi? Eman baladan aurkitutako adibideak.


✓ Errepikapenak oso ohikoak dira baladetan. Ba al dago horren adibiderik zuek aztertu duzuen horretan? Zerrendatu.

✓ Nolakoa da kontalaria/narratzailea? Orojakilea? Zein pertsonatan mintzo da?

✓ Erreparatu bereziki lehen ahapaldiari. Garrantzizko zerbait kontatzen du ala betegarri soila da? Arrazoitu.

- ❖ Aurkeztutako hiru baladetatik bitan pertsonaia ezagunez mintzo da testua. Batean, Bereterretxe aipatzen zaigu, eta bestean, Atharratzeko Jauna eta haren alabak. Aukeratu bietako bat eta bilatu Interneten edo entziklopedia eta bestelako

liburuetan horiei buruzko datuak: nor ziren, non bizi ziren, zergatik eskaini zaizkien kanta eder hauek... Idatzi hemen laburpena.



3. JARDUERA. Baladen gaiak

Aztertutako hiru baladak arras desberdinak dira gaiaren trataeran. Eta, hasiera batean gehienak maitasunaren inguruan eratzen zirela esan dugun arren, badaude desberdintzen dituzten xehetasun ugari ere.

Gaiari dagokionez, balada gehienak honako eskema honetara bil daitezke:

Gehienak XVI.-XVII. mendekoak direla uste da. Azpisail honetakoak dira balada gehienak. Amodiozko baladak 5 azpitaldetan banatuta daude:

- a) **Andere adulterio egileak:** ekintza horretatik emazteak ondorio txarrak jasotzen ditu: bortxa, heriotza, edo biak batera. Adib: *Andere Goraria*
- b) **Bahiketak eta sedukzioak:** neskek nahiago dute bere burua hil, bahitzaileen asmoei amore eman baino. Gurasoak izaten dira gertatutakoaren berri ematen dutenak. Adib: *Isabelatxu* eta *Neskato ontziratua*.
- c) **Maitasun kontrariatuak:** Beren amodioetan zorigaiztokoak izaten dira pertsonaiak. Gehienetan andrea (emakumea) da kexatzen dena. Adib: *Jaun Barua*.
- d) **Heriotzaz haraindiko maitasuna:** senarra edo galaia hil egiten da, eta emakume alargunak fideltasuna gordetzen dio. Aldagai asko daude talde honetan. Adib: *Egun bereko alarguntsa*

Senarraren etorrera kontatzen dutenak ere multzo honetan sartzen dira. Herritik urrun dagoen senarra mozturorik itzultzen da, emaztearen fideltasuna baieztatzeko. Adib: *Leixibatxu* eta *Jaun Zuriano*.

e) Amaginarreba gaiztoa: Amaginarrebak eta errainek dituzten liskarrei buruzkoak. Bukaerak desberdinak izan daitezke: errainaren heriotza, edo erraina haurdun geratu eta umeak bakea ekarri. Adib: *Frantzie Kortetik*

Amodiozkoak ez diren abentura baladak:

Sail honetan bestelako gaiak ukitzen dituzten baladak sartzen ditugu. Adb: *Ene mutilik tipiena*, *Andere Emilia*, *Neska soldadua*, *Ura isuririk...*

- ❖ Baladen gaiei buruzko teoria irakurri duzue. Hainbat baladaren izenak ere eman zaizkizue. Baina, hala ere, hasieran eskaini dizkizuegun hiruren izenburuak ez ditugu sartu. Zein atal eta azpisailetan kokatuko zenituzke?

	Bereterretxeren kantoria	Brodatzen ari nintzen	Atharratze jauregia
Balada epikoa			
Amodiozkoa			
Andere adulterio egileak			
Bahiketak eta sedukzioak			
Maitasun kontrariatuak			
Heriotzaz haraindiko maitasuna			
Amaginarreba gaiztoa			
Amodiozkoak ez diren baladak			

- ❖ Beheko web helbidean entzun ditzakezue beste balada batzuk.
<http://www.los40.com/> (Hiru Truku aukeratu eta bertan izango dituzue entzungai beste balada batzuk)

-  Frantziako andrea - 5:00
-  Neska soldadua - 3:55
-  Ana juanixe - 3:48
-  Isabelatxu - 5:13

- ❖ Saia zaitezte horietako bakoitza aurretik emandako gaien arabera sailkatzen.
Frantziako andrea:

Neska soldadua:

Ana Juanixe:

Isabelatxu:

- ❖ Orain arte entzun eta landu dituzuen baladak lehen eta bigarren taldetakoak izan dira. Jarraian duzuen, ordea, ez da amodiozkoa, bestelakoa du gaia. Arretaz entzun *Ura isuririk* edo *Mayi* izenez ezagutzen den balada eder baina era berean mingots hau.

MAYI (Herrikoia)

Ura ixuririk sorginen bidean
dohaina bildu dut Bazko arratsean.

Gauaz Mayi nauzu, egunaz oreina
etxeke zakurrek xerkatzen nutena.

Jakes nun tuk horak ezdiat senditzen
oihanpean kurri, oreina xerkatzen.

Jakes deit zakurrak, salba zak arreba
ama nola sinets Mayi daitekela.

Jakes zakurrei hasi da xistuka
oreina hil dute kolpez hausikika.

Jakesek kanitaz eman du pusketan
aseko ahal da Mayi gurekila.

Afal, afal Jakes ni nuk hor lehena
ene haragiaz beterik dupina.

Ama sala zolan nigarra begian
puinala sartu du bere bihotzean.



(Benito Lertxundi. *Pazko gauerdi ondua*)

http://www.euskalnet.net/turibeechevarria/html/es_hpazko.htm

Musika: <http://www.lastfm.es/music/Benito+Lertxundi/> /*Mayi*

Aurretiaz esan dugu balada bakoitzaren aldaera bat baino gehiago ere sarri aurkitu eta jaso izan direla. *Ura isuririk* honetan, ordea, ez da horrela gertatu. Piarres Laffittek argitaratu zuen 1996an ezagutzen dugun balada honen aldaera bakarra. Europa aldean, — batez ere Eskandinavia inguruan— berriz, oso ezagunak dira gai tragikoak lantzen dituzten estilo honetako baladak. Espainiako erromantzeen tradizioan ere bada antzekorik, bakanak diren arren. Esaterako: *Lanzarote y el ciervo de pie blanco*. (<http://www.cuestadelzarzal.blogia.com/.../xvi.-lanzarote-y-el-ciervo-de-pie-blanco.php>)

- ❖ Beharbada hiztegi aldetik zaila iruditu zaizue. Hobe duzue lehenbizi denon artean komentatzea eta ulertzea.

Gertaera tragiko baten kontakizuna da. 4 paragrafoz osatua dago eta narratzaileak oso desberdinak dira batean eta bestean:

- 1. paragrafoa: Mayiren monologoa da. Sarrera gisa funtzionatzen du.
- 2. paragrafoa: Jakes (neba) eta amaren arteko elkarriketa.
- 3. paragrafoa: Kanpoko narratzaile orojakileak kontatzen du gertatzen ari dena. Hirugarren pertsonan mintzo da.
- 4. paragrafoan: bi narratzaile desberdin agertzen dira: lehen bi bertsoetan Mayik hitz egiten dio Jakesi. Azken bietan, ordea, berriz ere kanpoko narratzailea da hitza hartzen duena eta bukaera ezin tragikoagoa kontatzen duena.

Hau guztia jakin ondoren, saiatu baladaren nondik norakoak laburbiltzen.

Mayi...

4. JARDUERA: Baliabideak aztertzen eta gure balada sortzen

- ❖ Beno, baduzue berriz ere zer aztertu! Lau baladaren letrak eskaini dizkizuegu. Saiatu, horiek gogoan, taula hau betetzen.

	BERETERRETXE	BRODATZEN	ATHARRATZE	MAYI
Heriotza/hilketa baten berri ematen digu				
Neska gaztea da transgresioa egiten duena (ikuspegi moraletik ondo ez dagoena)				
Ama da erruduna, neska gaztea horretara bultzatzen duena				
Neskatxa gazteei arriskuez hitz egiteko balio du				
Jaun dirudunek duten boterea salatzeke balio du				
Entretenigarri hutsa da gaia				
Ideologia transmititzen du: nagusien botere neurrigabea				

Baladen hizkuntzaz ere mintzatu beharra dugu. **Kontapoesiak** ere deitzen zaie, izaera narratiboa dela-eta. Baina, kantuz kontatzen dute istorioa, gertakizuna, doinua memoriaren lagungarri bikaina baita.

Memoriaren lana errazteko hainbat baliabide erabiltzen dira eta ohikoenak hauexek dira:

- **Errepikak:** hunkigarritasuna adierazteko eta olerkia egituratzeko. Modu desberdinetan gauza daiteke errepikapena:
 - Hitz baten errepikapena: Lerro berean, lerro desberdinetan, anafora (beti lerro hasieran), aditzaren errepikapena...
 - Lerro oso baten errepikapena: baladaren barruan lerro horrek dioena azpimarratzeko.
- **Paralelotasunak:** Azken finean errepikapenak dira. Izan daitezke: morfosintaktikoak ("Bereterretxe oheti/Bereterretxe leihoti"), sintaxia egituren errepikapenak ("Arrosa bezain eder/edurra bezain zuri"), sinonimoen metaketa, kontrajartzeak (antitesiak).
- **Zenbakiekin egiten diren jokoak:** hiru, zazpi eta bost dira gehien agertzen direnak, baina batik bat "zazpi". Beren esanahia ez da juxtu kopuru edo kantitate hori, zenbaki "magikoak" ere deitu izan zaie euskal tradizioan.
- **Esaldien ordena:** aditzak izenen aurretik eta hauek adjektiboak baino lehenago, izaera narratiboari eusteko. Eguneroko lexikoaren erabilera, aliterazio ugari...

- ❖ Ekin diezaiogun lanari! Berriz ere emandako lau baladak izango dira abiapuntu. Talde bakoitzak bat aukeratu eta horren inguruko azterketa-lana burutuko du. Irakurri arretaz egokitu zaizuen eta bilatu baliabide hauetarikoak justifikatzeko adibideak.

BERETERRETXE /BRODATZEN ARI NINTZEN/ ATHARRATZE JAUREGIAN /MAYI

Errepikak:

Lerro berean:

Lerro desberdinetan:

Anafora:

Esaldi osoaren errepikapena:

Paralelotasunak:


Zenbakien erabilera:

Aliterazioak:

- ❖ Orain zuen txanda da: **SORTU** egin behar duzue balada bat. Baina, ez ikaratu. Baduzue-eta nahikoa adibide. Badakizue balada bat azken finean kontapoesia dela, zerbait kontatzeko/kantatzeko modu dotorea.
 - ❖ Bi modutan egin dezakezue: hautatu irakurri edo entzundako bat eta “plagiatu”, hau da, pertsonaiak aldatu, gaur egungo egoeraren bat aukeratu eta hori kontatu moldea aprobetxatuta, aldaketa txiki batzuk eginda. Edo, bestela, bigarren urrats batean, berri-berria sortu biren artean: XXI. mendeko balada.
Pertsonaiak ezagunak izan daitezke: zuetakoren bat, irakasleren bat, herriko pertsonaia xelebreren bat. Edota, gertaera izan daiteke abiapuntu: gertatu zaizuen zerbait, telebistan ikusitakoren bat...
 - ❖ Saiatu errepikapenak, paralelotasunak, zenbakien erabilera berezia... sartzen.
 - ❖ Aukeratu, baita, tonu epikoa, lirikoa edo dramatikoa nagusituko den zuen baladan.
 - ❖ Hasiera batean, idatziz aurkeztuko dituzue, baina kontuan izan aurrerago besteen aurrean errezitatu edo esan beharko dituzuela. Hobe, beraz, grabatu ere egiten badituzue.

PROZEDURA

1. Hasteko, argi eduki zein pertsonaia edo gertakizun izango duzuen mintzagai. Desberdina izango da besteei irakurtzen uzteko idazten baduzue (nolabait esanda, “argitaratzen” baduzue), edo zuentzat baldin bada soilik.
2. Idatzi hasierako zirriborroa. Kontuan izan:
 - Lehen pertsona erabili beharko duzuela zuen burua protagonista bihurtzen baduzue eta hirugarren pertsona, kanpotik kontatzen baduzue. Elkarriketa erabiltzen baduzue (oso ohikoa baladetan) estilo zuzena izango da nagusi.
3. Garaia eta tokoa deskribatzeko datuak eman beharko dituzue, baina oso azaletik. Kontuz ibili, gertaerek koherentzia minimoa izan behar baitute, sinesgarriak izan daitezen.
4. Informazioa paragrafotan ondo antolatuta eman behar duzue eta ideiek lotura logikoa izan behar dute.
5. Berrikusi ortografia, puntuazioa...
6. Aurkeztuko duzuen behin betiko testua idatzi beheko taulan.



5. JARDUERA: Balada jendaurrean agertzen



Balada bat kontaketa bat, narrazio bat dela esan dugu orain arte. Ahoz transmititzeko eta memorian gordetzeko baliabide batzuei jarraituz osatzen direla ere esan dugu.

Puntu honetara iritsita, gu ere horiek ahoz transmititzen trebatuko gara. Horretarako, jakina, trebezia batzuk garatu beharko ditugu.

Jendaurrean zerbait kontatu, kantatu, errezitatu, esan azken finean nahi dugunean, hainbat atali erreparatu behar zaie.

Idatzita dagoen testu bat modu egokian esateko, lehenbiziko eta ezinbesteko pausoa hitzak, berbak, ondo ahoskatzea da. Euskararen kasuan idatzita dagoena ez da modu horretantxe ahoskatzen, arau batzuk baitaude ozenki irakurri edo esateko, aldaketa fonetikoak gauzatuz. <http://euskaljakintza.com> web orri bikainean baduzu horretaz informazio ona eta ugaria. Bestalde, hor agertzen direnak Euskaltzaindiak onartutakoak direla ere jakin behar duzu.

Lehenbizi komeni zaizu isilean irakurtzea, zeure golkorako. Aldaketa fonetikoak gauzatzeaz gain, orduantxe konturatuko baikara poema, balada edo tetsu bakoitzak bere barne erritmo propioa duela eta hori, ezinbestean, errespetatu beharra dagoela.

Sortzaileak jarri dituen puntuazio-markei ere erreparatu behar zaie. Beraiek markatuko digite non atseden hartu, non abiadura azkartu...

Eta, gogoratu: olerki bat, balada bat, ezin da besterik gabe lerroz lerro irakurri. Osotasuna zaindu behar duzu.

- ❖ Hainbat balada irakurri eta entzun dituzue sekuentzia honetan. Bada, orain zuen txanda iritsi da eta besteen aurrean esan, errezitatu, beharko dituzue. Bakoitzak bana aukeratuko du eta horrekin lan egingo du. Emanaldia prestatzerakoan hainbat kontu zaindu beharko duzue. Esaterako:
 - Emanaldia entretenigarria izan dadin nork bere gustuak izango ditu abiapuntu.
 - Kontuan izan beharko duzue entzuleak nor izango diren. Baliteke, beste maila batzuetakoak ere gonbidatzea...
 - Partaideen ordena ere zehaztu aldeztu aurretik.
 - Bitarteko materialik behar izanez gero, aldeztu aurretik prestatu. Esaterako: ez da gauza bera zuek balada bat irakurtzea edo entzuleei letra banatuta haiek ere jarraitu, kantatu, ahal izatea. Bitartekoak izan daitezke baita: giotzeko musika, argiak, dekoraturen bat...
- ❖ Irakurraldia/emankizuna bukatu ostean, baladen irakurketa baloratuko duzue. Ondoko kontrol zerrendan esaten denari erreparatu.

BALADAREN IRIZPIDEAK	IRAKURKETA	BALORATZEKO	BAI	EZ
Ondo ahoskatu du				
Perpaua osatzen duten unitate sintaktikoak intonazio egokiz esan ditu				
Pausaldiak era egokian egin ditu				
Abiadura egokiz irakurri du				
Ahots bolumen egokiz irakurri du				
Puntuazio markak era egokian interpretatu ditu				

Poesia, hitzaren artea lan-liburuskak DBH 3 ELKAR/IKASTOLEN ELKARTEA

- ❖ Egindako errezitaldia grabatu egin dezakezue. <http://entzun.blogsome.com/> helbidean baduzue horretan lagunduko dizuen informazioa.



6. Jarduera. Ebaluatzen

Egin duzuen lana burutzeko lan egiteko konpromisoa hartu behar izan duzue. Jarduera asko taldean gauzatu dituzue, hala ere, norbere konpromisotik abiatu da lana, eta jakin nahi dugu zer eta nola egin duzuen...

- ✓ Zer iruditzen zaizu baladak lantzeko proposamena? Gustagarria egin zaizu?
- ✓ Zure ustez, zertarako balio dizu?
- ✓ Zuk dituzun gaitasun eta trebetasunetatik, zeintzuk erabili dituzu?
- ✓ Zer kostatuko zaizu gehien? Baladak interpretatzea, jendaurrean esatea...
- ✓ Zein jarduera kenduko zenuke/zenituzke?
- ✓ Sekuentzia hau landu ostean, piztu zaizu gure ahozko tradizioetik jaso duguna preziatu eta transmititzeko gogorik?
- ✓ Nola baloratuko zenuke amaitu berria dugun unitatea?



- Unitatearen edukiak
- Erabilitako metodologia
- Erabilitako materialak
- Saioen erritmoa

✓ Zure ustez nola hobetu daiteke sekuentzia hau? Iradokizunak: